2022 MAIATZA

BERGARAKO ERROTAK



LIBURUXKA HONETAN 2000. URTEAN BERRIGARA ALDIZKARIAK ARGITARATUTAKO BERGARAKO ERROTEI BURUZKO BILDUMA JASO DA.

Bergarako Udala

Jardun





EDUKIA

JATORRIZKO EDUKIA

2000. urtean Berrigara aldizkarian argitaratutako Bergarako Errotak bilduma

JATORRIZKO EDUKIAREN EGILEA

Antxon Agirre Sorondo

ITZULPENA

Berrigara

BERRIGARAREN ARGITARATZAILEA

Jardun Euskara Elkartea

BILDUMA HONEN PRESTATZAILEA

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

AITZIN-OHARRA

Liburuxka honetan 2000. urtean Berrigara aldizkariak argitaratutako Bergarako errotei buruzko bilduma jaso da. Artikuluok Antxon Agirre Sorondok moldatu zituen eta, aurtengo Errota Egunari begira ekarpentxo bat egin nahirik, batuta eman nahi izan ditugu hemen, Antxonek sortutako testuak bere horretan jasota.

Irudiei dagokienez, Berrigaran agertu zirenez gain, beste batzuk erantsi nahi izan ditugu eta jatorri batekoak baino gehiagotakoak txertatu ditugu. Berrigaran bertan agertutakoak ez direnean adierazi dugu iturria.
Gure eskerrak adierazi nahi dizkiogu Jardun elkarteari Berrigara aldizkariaren argitaratzaile izan zen aldetik, edukia plazaratzeko aukera emateagatik.

Era berean, gure omenaldirik zintzoena Antxon Agirre Sorondori egin zuen lan erraldoiagatik.

Bergarako Udala, Euskara Zerbitzua

SARRERA

Kristo aurretiko 700 urte inguruan, gure inguruan, gure ingurune honetan bizi ziren gizakiak batik bat haragijale izatetik alea edo bihia ere jatera pasa zirenean, neolitiko garaian, landareak egokiago erabiltzeko sortu ziren errotak. Hasieran bi harri besterik ez ziren erabiltzen, baina denborarekin aldatuz joan zen, erromatarrek zaldiak erabiltzen zituzten mugitzeko. Ertaroan, berriz, ura erabiltzen zuten mugimendua sortzeko.

Gipuzkoan 661 errota izan ziren, horietako 41 Bergaran zeuden; beraz, probintziako errotarik gehien zuen herria dugu Bergara, atzetik, Donostia, 28 errota zituen.

Hainbeste errota izatearen azalpena izan daiteke ohikoa zela sortetxeek, baliabide ugariko etxe bakoitzak, bere errota izatea. Eta, gainera, ur-baliabide ugariko ingurunean gaudela kontuan hartuz gero, azalpena garbia da: dirua+ura=errota.

ANTXON AGIRRE SORONDO, BERRIGARA 394.
2000KO URTARRILAREN 21A

ASKASIBARBOLUA

TESTUA
Berrigara 407
2000/04/28

ARGAZKIA
Bergarako Udal Artxiboa.
J. Idigoras fondoa

Bere izenak eta kokalekuak dioten bezala, errota izandakoa dugu gaur eguneko baserria.

Bisitan joan ginenean, Valentin Belastegik esan zigun bera baserri horretan bertan jaio zela eta inoiz entzun gabe zuela errota izan zenik; hortaz, badirudi aspaldi laga ziola errotako lanari.

Angiozar errekako urak hartzen zituen, erreka horren eskuinaldean dago eta.

ARGAZKIA
Bergarako Udal Artxiboa.
J. Idigoras fondoa

Kokalekua: *Angiozar auzoa, Loidibolutik behera. 500 bat metrora.*

ZUBIAURRE ERROTA

TESTUA
Berrigara 407
2000/04/28

Esteban Irizar Larrea zen errotaria eta 1895ean bera ari zen lan horietan, 1890eko zentsu ofizialaren arabera. Irizarrek 46 urte zituen eta bazekien irakurtzen eta idazten.

1899ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Zubiaurreko errota aipatzen da eta baita 1900ekoan ere.

Inguruko bizilagunek esan zigutenez, Zubiaurre errotako azken errotaria Eulogio Irizar izan zen, eta 1941ean hil zen, 64 urterekin.

Deba ibaiaren eskumako aldean zegoen, eta bertako urarekin egiten zuen lan, bi harri zituen.

Eulogio Irizarrek zerrategia jarri zuen errota honetan eta zerrategi zein errota lanak biak batera egiten zituen. Horretaz guztiaz gainera, etxerako argindarra ere bertatik lortzen zuen.

1910ean utzi zien errota-lanei eta bera zegoen lurretan etxeak egin ziren.

Kokalekua: *Ozaeta jauregitik 100 metrora, Zubiaurre auzoan.*

AMUSKIBARBOLUA

TESTUA
Berrigara

Juan Bautista Lazpiur Lizaur Amuskibar baserrian helbideratua ageri da 1890eko zentsu ofizialean, 39 urte ditu nekazariak eta badaki irakurtzen eta idazten.

1912ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO), Esteban Irizarrek argindarra lortzeko urak aprobetxatzeko egindako eskaera dela eta, hauxe ageri da:

" Helburu horrekin lehen Amusquibar izenarekin ezagutzen zen errotaren (gaur egun baserri bihurtua) aspaldiko urtegitxoa berregin nahi da "

Amuskibar baserri-errota 1922an aipatzen da, 1927an, ordea, Amuzquibar moduan dago jasota.

Auzokideek esan ziguten badirela berrehun urte baino gehiago errota lanak egiteari utzi ziola. Angiozar errekako urekin egiten zuen lan errotak. Gaur egun, oso hondatuta dago (aurri egoeran).

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

Kokalekua: *Bergaratik Angiozarrerako bidean goazela, bi kilometrora.*

ATXURIONDO

TESTUA

Berrigara 429
2000/11/10

1890eko errolda ofizialaren arabera, Jose Gallastegi Askasibar (66 urte) errotaria eta Agustin Gallastegi Askasibar (82) ehulea bizi ziren garai hartan "Achuriondo" errotan (biek zekiten idazten eta irakurtzen).

1895ean Jose Gallastegi zen errotaria. 1927an errotaren urak Bergara hornitzeko hartzen hasi ziren, baina ez zen ur guztia erabiltzen.
1929ko GAO:

"On Valentin Movilla bergararrak, Sobrino de Fernandez y Cia-ren izenean, eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Muzkiritxu-errekako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek Martires-Oxiranzu izeneko auzoan dagoen "Achuriondo" errotan argindarra sortzea du belburu. Jasotzen duen ur-emaria segundoko 60 litrokoa da, eta 5 metroko jauzia dauka.."

1953ko GAO-n antzeko eskaera egin zuten Gonzalo, Francisco, Maria, Pilar, Carmen eta Valentin Movilla Fernandezek.

1936-1944 urte bitartean irin errota publikoa izan zen Agirrezabalen alargunaren eta semeen gidaritzapean.

Aitxuriondo errota Muskiritxu errekako urez baliatzen zen, eta beronen eskuman zegoen kokatua. Bi harri-errodete zeuzkan bi pare harri mugitzeko. Makina garbitzailea ere bazuten. Errotariak berak xehatzen zituen harriak. Azken errotaria Eusebio Alberdi izan zen.

Ehotzeagatik %10 kobratzen zuten.

ARGAZKIA

Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

Kokapena: *Billotegibolutik 500 metrora.*

BARRENA ERROTA

TESTUA

Berrigara 405
200/04/07

Lorenzo Altuna Gorosabel (36 urte) eta Agustin Altuna Bolinaga (57 urte) bizi ziren bertan, 1890ko errolda ofizialaren arabera, biak nekazariak eta alfabetatu gabeak. 1895ean, Agustin Altuna ageri da errotari.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean honela dio:

"Martín Altuna jaun bergararrak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan berea jasoa izan dadin. Deba ibaiko ura erabiltzen du Barrena errotan (Bergara) argindarra sortzeko. 800 litro ur jasotzen du segundoko eta 3,39 metroko jauzia dauka. Hori guztia ezagutzera ematen dut..."

Kokapena: *Elorregi auzotik 3 bat kilometrora dago. Arrasate aldera azken baserria.*

1927tik 1933ra baino ez zuen egin eskaria irin-errota publikoa izateko, Martin Altunaren izenean. Bera izan zen azken errotaria; 1967an hil zen, 79 urte zituela.

Deba ibaiaren ezkerraldean kokatua; hiru errotarri zeuzkan, eta, gastatutakoan, Martinek berak pikatzen zituen. %10 kobratzen zuen ehotze lanaren truke. 1935ean laga zion ehotzeari. Izenak pentsatu eragiten digu noizbait eskupeten kainoiak zulatzeko erabili izan zela, beste hainbat eta hainbat errota bezalaxe.

ARGAZKIA

Euskara.bergara.eus

BARRUTI

TESTUA

Berrigara 421

2000/1/09/15

ARGAZKIA

Berrigara

Francisco Gallastegi Iribecampos (62 urte) eta Pablo Elkoro-Iribe Lizarriturri (31 urte) ziren Barrutiko errotan errotari lanetan zihardutenak, 1890eko zentsu ofizialaren arabera.

1895ean, Francisco Gallastegi agertzen da errotari. Lehenagotik ere, errota izan bazen ere, irina egiteko errota hau 1927an izendatu zen "publiko", Pablo Elkoroiriberen izenean. 1939an H. Elkoiribe Lizarriturriren izenean agertzen da, eta hamar urte beranduagotik, 1949tik 1963ra egongo da alta emanda errota moduan. 1962tik aurrera, Matias Elkoroiribe Gallastegik ordainduko zituen tasak, eta okindegi moduan ere agertuko da lehenengoz.

1930ko G.B.O.:

"Bergarako Pablo Elkoroiribek eskatu zuen izena emateko uren erabilgarritasun erregistroan, Elgetako erretena erabiltzeko aukera izateko. Barrutia errotarekin argi-indarra ateratzeko egin zuen eskaera. Ubideak zuen emaria 150 litro segundukoa zen eta egiten zuen saltoa 3 metro eta 60 zentimetrokoa. Publiko egiten dena..."

Antzerako eskaera egin zen 1956ko G.B.O-ean, baina oraingoan, Matias Elkoroiriberen izenean.

Azkenengo errotaria Antonio Elkoiribe izan zen, 1933an jaio zena. "Elgeta-erreka"-ko urarekin mugitzen ziren burdinazko sorkiekin eraginda bi harri pare handi zituen.

Artoa eta garia ziren errota honetan ehotzen zirenak, 1951n errota gelditu zen arte.

Harria xehatzeaz ere bera arduratzen zen, eta berak ezin zuenean, Paulino Gazteluk laguntzen zion.

ARGAZKIA
Bergarako baserriak

Kokapena: *Bergara eta Elgetako bidegurutzean, Elgetako erreteneko urak eta Deba ibaiko urekin.*

BEKOERROTA EDO IRUAUZO ERROTA

TESTUA
Berrigara 402.
2000/03/17

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak 1955, dio:

"Florencio Ruiz Bergarako bizilagunak, Iruauzo elkartearen izenean, adierazten du aipatutako elkarteak Angiozar errekako urak erabiltzen dituela Bergarako lurretan dagoen Iruauzo errotan indarra sortzeko, eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxamenduen Erregistroan, 1901eko apirilaren 12ko Errege Dekretu bidez sortutakoan, inskribatzea nahi lukeela.
Eta hori guztia jendeari jakinazten zaio..."

Auzokoek esan zigutenez (1981/1/8), hasieran argindarra sortzeko eraiki zen eta gero, 1952an, jaso zutenek eurek errota bihurtu zuten, eurek erabiltzeko.

Angiozar errekako urak erabiltzen zituen eta bi harri pare zituen, azken horiei eragiteko Eustakio Bilbao bilbotarrak egindako burdinazko bi turtuki zituen.

Harriak berriz, Florencio Ruizek pikatzen zituen. Bazkideek beren beharretarako erabiltzen zuten.

Kokalekua: *Errota baserria baino 200 metro beherago.*

BELASTEGIBOLUA

TESTUA
Berrigara 426
2000/10/20

Lope Martinez Isastik, bere garaiko Bergarako oinetxeen artean, Beiztegikoa aipatzen du. Ziurrenik Oinetxe horretatik sortuko zen gerora Beiztegi-bolu errota.

Nire galdera: badaukate zer ikusirik Belastegik eta Beiztegik? Nire ustez, ez.

1919an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean errotaren jabea Gregorio Lizarazu dela adierazten da, era berean, zehazten da “joan deneko 50-60 urtean errota ez dabilela oso ondo”.

Belastegibolura joan ginenean, Maria Aristimuñok (1924an jaioa) adierazi zigun berak entzuna zuela noizbait errota izan zela, dena dela, esan ziguten bazirela gutxienez ehun urte errota izateari utzi ziola.

Berastegi-errekako urak erabiltzen zituen eta bere ezkerreko aldean zegoen. Eraikinean antzeman daiteke, nahiz eta tapatuta dagoen, garai batean errotapea izan zena.

ARGAZKIA
Bergarako Udal Artxiboa.
J. Idigoras fondoa

ARGAZKIA
Euskara.bergara.eus

Kokalekua: *Errota baserria baino 200 metro beherago.*



BILLOTEGIBOLUA

TESTUA

Berrigara 428
2000/11/03

Billotegi errotan, 1890eko errolda ofizialaren arabera, bi pertsona bizi ziren garai hartan: Ignacio Gantxegi Gantxegi, 63 urtekoa, eta Alejandro Gantxegi Astigarraga, 29 urtekoa. Biak ere errotariak, ez zekiten ez idazten ez eta irakurtzen ere. 1895ean, Ignacio A. Gantxegi zegoen errotari. 1917ko GAOn azaltzen denez, garai hartan, Eladio Urdangarin magistratu bilbotarra zen errotaren jabea.

1927an, errotaren urak Bergara hornitzeko erabiltzen hasi ziren. Erabiltzen ez zen urarekin Valentin Movillak energia elektrikoa lortu nahi zuen Billotegin. Horretarako eskaria egin zuen, Sociedad Sobrino de Fernandez y Cia-ren izenean, 1929. urtean.

1949an agertzen da, berriro ere, herriko irin-errota bezala, Francisco Olaberria Gantxegiren izenean. Bestalde, 1954-1956 urteen artean, Bonifacio Franciscoren anaia izan zen errotaren jabea.

1953ko GAO:

"On Gonzalo eta On Francisco Movilla Fernandezek honakoa eskatzen dute: 1901eko apirilaren 12ko errege-dekretuak sortutako herriko uren ustiapen erregistroan sartzea; hauek Muskiritsu-errekako erreteneko urak erabiltzen dituzte; euren jabetzakoa den Bergarako Billotegi errotara isurtzen dituzte urok, industrian erabiltzeko...
Herriari jakinarazten zaio.."

1955ean eskari bera egin zen. Muskiritsu-errekako urekin egiten zuen lan. Bi harri pare zituen eta burdinazko errodeteen bidez jartzen ziren martxan. Komisio edo "laka" lanarengatik kobratzen zuten: %10 espezietan. 1969an lan egiteari utzi zion.

ARGAZKIA
Bergarako Udal Artxiboa.
J. Idigoras fondoa

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi (euskara.bergara.eus)

Kokapena: *Osintxuko bidegurutzean, errekan gora joan (Muskiritsu erreka) eta kilometro batera.*

BOLINTXO EDO ARITZABALETABOLUA

TESTUA
Berrigara 417
2000/07/07

Pedro Txurruka Kareaga, 54 urtekoa, nekazaria (ez zekien irakurtzen eta idazten) Aritzabaletako errotan bizi zen 1890ean, orduko zentsu ofizialak dakarrenez.

1931n Victoriano Arizabaletaren izenean eman zitzaion alta Bolintxoko errotari herri-errota gisa, eta 1944tik 1956ra, Eusebio Arizabaleta Kortabarriaren izenean egon zen. 1956a izan zen herri-errota moduan aritu zen azkeneko urtea.

Kokapena: *San Juango ermitaren aurrean.*

Bertako azkeneko errotaria Eusebio Arizabaleta izan zen. 71 urte zituela hil zen, 1973an.

Elgeta-errekako urak erabiltzen zituen eta, hain justu, bere eskumatara dago.
Bi harri pare zituen, burdinazko bi turtukik eragiten zietenak.

Eusebiok berak pikatzen zituen harriak eta ehotakoaren %10eko “laka” ematen zitzaion.

1973an utzi zion errota honek ehotze-lanari; okindegi bihurtu zen gero.

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

BOLINTXO

TESTUA

Berrigara 400
2000/03/03

Alta 1936an eman zitzaion irina ehotzeko errota publiko gisa, Timoteo Aranzabal Arazcienagaren izenean. 1962tik 1963ra Bonifazio Aranzabal Laskurain izan zen titularra eta une horretan utziko zion errotak publiko izateari.

Bonifazio Aranzabal izan zen azken errotaria, 1927an jaioa.

Angiozar errekako urak erabiltzen zituen, eta errekaren ezkerreko aldean zegoen. Bi harriak burdinezko turtukien eraginez mugitzen ziren.

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

Kokapena: *Angiozarko elizaren barrenean, Bergarara bidean, Errotabarritik gertu.*

ERROTEAGA

TESTUA
Berrigara 400
2000/03/03

Gaur egun baserri batek dauka izen hori. Gaur eguneko jabeek entzuna zeukaten aurretik eman zitzaion erabilera.

Diotenez, baserri parean zentral elektrikoa egon omen zen aurretik, eta horrek zutiko gurpil handi batzuk erabiltzen zituen mugitzeko. Egurrezkoa zen.

Eskuinaldetik zihoan Angiozar errekako urekin ibiltzen zen.

Kokapena: *Angiozar auzoan, Bolintxotik behera, 500 bat metrora.*

ARGAZKIAK
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

BOLUBARRI (II)

TESTUA
Berrigara 423
2000/09/29

ARGAZKIA
Pedro Mari Arregi
(euskara.bergara.eus)

Baimena 1894an eman zitzaion eta dokumentu horretan interes handiko zerbait aipatzen da:

“Emilia Berroeta anderea jabe duen Bolubarri errota, Bergarako lurretan dagoena, aurreko urtean, 1834an urak igo eta suntsituta geratu zena…”

Uholde horiek izan ziren inguru hauetan izandako handienak. Ekainaren 30eko goiz eta arratsalde osoa egin zuen euria eta anekdota moduan aipatzen da 1961ean Euskalerriaren Alde aldizkarian agertzen dena:

Zerrenda hori apurtutako zubiek Soraluzen gertatutako suntsiketek eta abarrek osatzen dute.

1915eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Bolunbarriko urak erabiltzeari buruz hitz egiten da. Erabilera "Sociedad de Algodonera de San Antonio" moduan agertzen da.

Bolubarri errota Deba ibaiaren urarekin zebilen martxan. Gaur egun ez dago arrasto zipitzik ere: desagertua dago.

Kokapena: *Bergarako Santo Tomas zubiaren ondoan..*

"Beren izatea inoiz izango ez bailitzan San Antonio auzotik zazpi etxebizitza desagertzea eta bertako ermita, auzoari izena ematen diona; Zubiaurren hiru etxe; Martirietan, bost; baita parrokia ere; Zubietan hamabost etxe; Mugertzan bi etxe; zazpi baserri uholdeen eraginez suntsituak, zazpi errota, bost lantegi… Guztira desagertutako eraikinak 47 izan ziren. Horien artean oraindik pareten bat zutik dutenak hamalau dira, hilabete batzuk beharko dira normalean erabiltzen diren errotak berriz martxan jartzeko; Elgeta, Muskiritsu eta Santa Ana errekekin dabiltzan errota txikiak martxan jarri ahalko dira"

BONBOLU EDO GOENBOLU

TESTUA

Berrigara 409
2000/05/12

Francisco Ezpeleta Iñurrigarro, 65 urtekoa, eta Felipe Ezpeleta Larrañaga 26 urtekoa, bizi dira bertan, 1890eko erroldaren arabera. Biak errotariak dira, eta badakite idazten eta irakurtzen.

1895ean Francisco Ezpeleta dago errotari.

1919ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Goemburu izena dator. 1929koan, honela dio:

"Felipe de Ezpeleta jaun bergararrak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Antzuolako errekako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutakoak, Bergarako izen bereko auzoan dagoen Goenbolu errotan argidarra sortzea du helburu. 200 litro ur jasotzen du segunduko, eta 7,10 m.ko jauzia dauka…"

1927an hartu zuen alta irin errota publiko moduan, Felipe Ezpeletaren izenean, eta 1944tik aurrera, okindegiei zegokien zerga ere ordaindu zuen. 1947tik aurrera, Felipe Ezpeleta Larrinoaren izenean dator. 1954tik aurrera zentral elektriko moduan ere ageri zaigu, eta 1959an irin erota publikoa izateari utzi zion.

Jasotako informazioaren arabera, Felipe Ezpeleta izan zen azken errotaria, 1946an hil zen, 82 urte zituela.

Ezkerraldean duen Antzuola errekako urez baliatzen zen. Bi harri pare zeuzkan, eta arto eta gariarekin lan egin ohi zuen. % 10eko laka (komisioa) jasotzen zuen. 16 CVko motordun turbina ere bazuen.

1941ean egin zuten bertan azken ehoketa.

ARGAZKIA
Bergarako Udal Artxiboa
Roman Larrañaga fondoa

Kokapena: *Antzuolako bidean, San Antonio errotako bidegurutzea baino 100 metro lehenago (gaurko semaforoaren ondoan) .*

ELORTZABOLUA

TESTUA
Berrigara 418
2000/07/14

Lope Martinez Isastik oinetxearen aipamena egin zuen 1625ean.

1890eko erroldaren arabera, garai hartan Antonio Aranguren Berrio bizi zen bertan. 40 urte zeuzkan, eta lanbidez nekazaria zen (bazekien idazten eta irakurtzen).

1895ean, Manuela Garitano zegoen errotari.

1907 eta 1916ko Gipuzkoako aldizkari ofizialek Elortza errota aipatzen dute.

1929ko G.A.O.ak honakoa dio:

1944an hartu zuen alta industri erroldan, Benito Zabaleta Villarren izenean; 1963an baja eman zitzaion Roman Zabaleta Olabarriaren izenean zegoela.

Elgeta errekaren ezkerraldean dagoenez, bertako urez baliatzen da. Hasiera batean, bi harri pare zerabiltzan; azkenean, ostera, bakarra.



"Juana de Dios Aranguren andre gasteiztarrak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Ubera errekako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek, Bergarako Elortza errotan argindarra sortzea du helburu. 150 litro ur jasotzen du segunduko, eta 7 metroko jauzia dauka"

ELOSUKO ERROTAZAR

TESTUA

Berrigara 434

2000/12/12

Elosua auzoan errotarik egon zenik esaten duen libururik ez dugu aurkitu: ez 1802ko "Diccionario-Histórico-Geográfico del País Vasco"n, ez 1826ko "Diccionario Geográfico-Estadístico Histórico de España y Portugal" liburuan, eta ezta 1845eko Madozen "Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus Posesiones de Ultramar" obran ere ez dago inongo aipamenik.

Hala ere, errota bat topatu dugu ikerketa askoren ondoren: Errotazar.

Garai bateko Bolintxu baserriaren ondoan zegoen, Ormolamendi auzoan.

Bolintxu-errekako urez baliatzen zen; gaur egun, errota horren aztarna gutxi batzuk geratzen dira, sasi artean.

Ezin izan dugu jakin noiz utzi zion errota izateari, inork ez duelako ikusi funtzionatzen.

Kokapena: *Azkoititik Elosurako bidean, Elosuko elizatik 1,1 kilometrora, errepidearen ezkerraldetik irteten den mendi-bidea hartu, Korta baserriaren ondoan dagoena, eta baserri horretatik 500 metrora, inor bizi ez den Bolintxu baserriaren ondoan.*

ERROTABARRI

TESTUA
Berrigara 399
2000/02/25

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (GAO), 1929koa

Maria Gantxegik adierazten du Bergarako udalerrian, Angiozar bailaran, Angiozar errekako urak erabiltzen dituela Errotabarri izeneko errotan indarra sortzeko eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxarnenduen Erregistroan inskribalzea nahi lukeela. Darabilen ur kopurua, bataz beste 15 litro segundukoa da eta duen ur jauzia 5,80 metrokoa. Eta hori guztia jendaurrean jartzen da.

Antzeko iragarki bat agertu zen GAOn 1956an ere; orduko hartan, Dionisio Gazteluren izenean.

1936an irina ehotzeko errota publiko gisa eman zitzaion alta Maurizio Gantxegiren oinordekoen izenean, eta 1954tik aurrera, Dionisio Gaztelu Agirrezabalen izenean egon zen, harik eta 1958an errota publiko gisa baja eman zitzaion arte. Dionisio Gaztelu izan zen azkenengo errotaria.

Angiozar errekaren eskumatara dagoen errota bat zen eta bi harri zituen, garia eta artoa ehotzeko erabiltzen zirenak, batez ere.

1964an utzi zion lan egiteari eta bere azkenengo urteetan %10eko laka kentzen zuen. Gaur egun ez dago erabiltzeko moduan.

Kokapena: *Bolintxo baino 100 bat metro gorago, Angiozarko elizaren azpian.*

ERROTAERDI

TESTUA
Berrigara 420
2000/09/08

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren arabera 1890. urtearen bueltan bizi zen Errotaerdin Pedro Gallastegi Agirrezabal, 41 urteko errotaria. 1895ean agertzen da errotari moduan Pedro Gallastegi.

1927an, Industria sailean, uruna egiteko errota moduan dago izena emanda, Francisco Gallastegi Epelaren izenean. Beronek 1939an kuota ordaintzen zuen energia elektrikoa jasotzearen trukean. 1946tik aurrera, okindegia izan zen. 1954an ordaindu zen azkenekoz kuota hori. 1963an utzi zitzaion ordaintzeari, azken ordainketa hori Maria Larrañaga Pildainek egin zuen.

Errotaerdik bere jardunerako Elgeta errekako urak erabiltzen zituen. Burdinezko hiru sorki zituen errotak, eta berau martxan jartzeko hiru harri-pare. 1980an horietako bik baino ez zuten funtzionatzen eta okindegiko lanak egiteko erabiltzen ziren.

Azkenengo errotaria Nikolas Elgarresta izan zen, 1991an hil zen 89 urte zituela.

ARGAZKIA
Euskara.bergara.eus

Kokapena: *Errotaerdi San Juan auzunean dago, Bergaratik Elgetarako igoera hasten den puntutik ehun metrora.*

ERROTAGAIN EDO BALANTZA ERROTA

TESTUA
Berrigara 414
2000/06/16

Honako hau irakur daiteke 1929ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean:

"Agustín Marquiegui bergararrak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Ubera errekako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek, Bergarako Ubera auzoan dagoen Balanza errotan argindarra sortzea du helburu. Jasotzen duen ur-emaria segundoko 9 litrokoa da,eta 3,06 m.ko jauzia dauka".

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

1934an eman zitzaion alta irin-errota publiko honi, Jose Marquieguiren izenean, eta 1939tik agertzen den azken urtera arte, 1951ra arte, J. Marquiegui Mendizabalen izenean egon zen.

Esan zigutenaren arabera, Lorenzo Marquiegui izan zen Errotagaineko azken errotaria. 1973an hil zen, 65 urte zituela.

Elgeta errekaren eskumaldean dagoenez, bertako urez baliatzen zen. Bi pare harri eta zerrategia zeuzkan.

1965ean laga zion ehotzeari, eta gaur egun autoen tailerra dago bertan.

Kokapena: *Uberan, elizatik 100 metrora, Bergara aldera, bidearen eskumaldean.*

ERROTAGOIKOA

TESTUA

Berrigara 419.
2000/07/21

Ondorengoak bizi ziren Errotagoikoan 1890ean, orduko zentsu ofizialaren arabera: J. Francisco Azkarate Mujika, 68 urtekoa, okina, irakurtzen eta idazten ez zekiena, eta Luziano Azkarate Argarate, 32 urtekoa, errotaria, irakurtzen eta idazten bazekiena.

1895ean Kruz Azkarate zegoen Errotagoikoan errotari.

1933. urtean Luziano Azkarateren izenean eman zitzaion alta industria erregistroan irina egiteko herri-errota gisa eta 1939tik aurrera argindarra sortzearen kuota ere ordaindu izan zuen. 1948tik 1961era bitartean, Kandido Azkarateren izenean egon zen. 1961eko urte hori izan zen herri-errota moduan funtzionatu zuen azkeneko urtea.

Kruz Azkarate izan zen bertako azkeneko errotaria, 1917an jaio zen.

Elgeta-errekako urak erabiltzen zituen eta bere eskumatara dago.

Pago-egurrezko bi turtuki zituen, 1936a baino urte batzuk lehenago, lehengo usteldutakoen ordez jarritakoak. 1981ean artean bere lekuan zegoen egurrezko turtuki horietako bat. Hauxe izan da Gipuzkoan egurrezko turtukiak zituen errota bakarra, gainontzekoek burdinazkoak erabiltzen zituzten eta.

Harriak pikatzea ere Kruzek berak egiten zuen eta ehotakoaren %10eko laka kendu ohi zuen.

Kokapena: *Bergaratik Elgetarako bidean, Barrutiko errotatik ehun metrora, ezkerraldetik igota.*

NAPARRENEKO ERROTA

TESTUA

Berrigara 432
2000/12/01

Irin-errota zen eta Bergarako Goimendi auzoan zegoen. 1960an obra-hondakinek guztiz estali zuten errota.

Azken errotaria Joaquin Pablo Aldai izan zen.

"Sagarrerreka"ko urez bailatzen zen. Errota erreka horren eskuinaldean zegoen.

Kokapena: *Soraluzeko Errotaberri errotatik 200 metrora errekan gora, garai bateko kanoi-fabrikaren parean.*

ERROTAZAR

Ingurukoek esan zigutenez, eremu horretan urak zeukan indar ahula zela eta, errota hau erabiltzeari utzi zitzaion eta pixka bat beherago Ibarrola errota eraiki zen.

Desagertutako Errotazar errotak "Sagarrerreka"ko urak erabiltzen zituen.

Kokapena: *Goimendi auzoan, Ibarrola errotatik 20 metrora (Soraluzeko bidetik joaten da bertara).*

GOIMENDI EDO EPELEKO ERROTA

TESTUA
Berrigara

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

Zenbait familiaren artean euren erabilerarako jasotako errota dugu. Goimendi erreka inguruko baserri hauek osatzen dute elkartea: Paigorri, Gongeta baserriko bi familia, Lasarte, Zuloetagain, Zuloetazpi, Gontsarriko bi familia, Altuna eta Lopeko bi familia; eta Meatzerreka inguruko baserri hauek: Zarazar, Zarabarri eta Montzon.

Biagorri errekako urekin egiten zuen lan, horren eskuinaldean zegoen eta. Ura depositu handi batean pilatzen zen, eta 50 metroko tutu baten bidez eramaten zen errotara.

Bi harri pare zituen, eta normalean artoa eta garia lantzen zituen.

1956an laga zion lanari. Orain oso hondatuta dago, aurri egoeran.

Kokapena: *Arrasatetik Elorriorako errepidea hartuta, Kanpazar gainera iritsi aurretik, Altuna baserriaren azpialdean, eskuinaldera doan pista hartuta iristen da bertara; Biagorri eta Epele errekek bat egiten duten tokian dago. Epele erreka Arrasate eta Bergara udalerrien arteko muga dugu.*

ARGAZKIA
Berrigara

GOENETXE ERROTA

TESTUA
Berrigara 410
2000/05/19

Santiago Larrañaga Orueagasti bizi zen bertan, 1890eko errolda ofizialaren arabera. Lanbidez, nekazaria zen, 50 urte zituen, eta ez zekien ez irakurtzen ezta idazten ere.

1891ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak (G.A.0) zera dio:

"Bergarako Udalak Gueneche izeneko irin-errotaren aprobetxamendua aldatu eta bertan argindarra sortzeko baimena eskatzen du. Indarra herriko argiak hornitzera bideratua egongo da. Horretarako, beste ur jauzi bat behar denez, errotaren konportak baino 21 m. goragotik hasita, 104 m. luze eta 3,60 m zabal izango den harlauzaz estalitako desbideraketa-kanala egiteko asmoa du"

Kokapena: *Beheko estazioan, ingurubideeko zubiaren hasieran bertan.*

1894ko G.A.O.aren arabera, Echaide y Cia. Dira errotaren jabeak, hau da, Bergarako kotoizko ehun eta irundako gaien lantegiarenak.

"Bergarako Algodonera de San Antonio S.A.k eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Matxiategiko jauziak soberan dituen urak erabili eta bigarren mailakotzat jo izan dena jasoa izan dadin. Energia sortzea izango du helburu. Goeneche izena du, eta Bergarako Ortuibar auzoan dago. Segundoko 500 litro ur erabiltzen du, eta 3,10m.ko jauzia du"

1927an eman zitzaion alta errota “publiko” honi, Ascensio Lizarralderen izenean. Goenetxek okindegia zeukala eta, 1939tik aurrera zegokien zerga ordaindu zuen. 1949tik 1956ra bitartean, Javier Lizarralde Ezpeletaren izenean egon zen. Irin-errota publikoa izateari laga zionean, 1961ean, Luis Lizarralde Ezpeletaren izenean zegoen.

1955eko G.A.O.ean, Guen-Etxe izena dator. Javier Lizarralde, 1926an jaioa, izan zen azken errotaria. Auzokideen esanetan, 1946an laga zion errota lanari (datu hori ez dator bat industri kuoten ordainketa agiriekin). Deba ibaiaren eskumaldean zegoenez, bertako ura erabiltzen zuen bere hiru pare harriak mugitzeko. 1892ko ekainaren 6an bota zuten, bertan ingurubideko zubi berria egiteko.

IBARROLA ERROTA

TESTUA

Berrigara 431
2000/11/24

Errota hau 1931n eraiki zen. Errota izateaz gain, zentral elektriko txikia ere izan zen, eta inguruko 11 baserri hornitzen zituen.

1934an alta eman zitzaion irin errota publiko bezala: Donato Osa Arancetaren izenean egon zen 1963. urtera arte (errota publiko izateari utzi zion urte horretan).

Inguruko auzokideen esanetan, azken errotaria Juanito Osa izan zen: 1979an hil zen, 53 urte zituela. Azken ehotzea 1969an egin zuten.

"Sagar-erreka"ko urak hartzen zituen: turbina bat zeukan harri pare bat mugitzeko.

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

Kokapena: *Soraluzetik Maltzagarako bidean, lehen desbideratzean ezkerretara hartu, eta bide amaieran dago errota, Bergarako Goimendi auzoan.*



LASPIURBOLUA

TESTUA

Berrigara 433
2000/10/27

Martinez de Isastik 1625ean aipatzen du Laspiur Antzuolako orubetxe bat dela.

1890eko zentsu ofizialean agertzen denez, Laspiurko errotan ondorengoak bizi dira: Antonio Alberdi Iturbe, 45 urtekoa, eta Jose Alberdi Iturbe 67koa, errotariak biak eta irakurtzen eta idazten ez dakitenak.

1895ean Jose Alberdi da bertako errotaria.

1904ko urriko eta azaroko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan Laspiur Mayor izenez agertzen da. 1906ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, berriz, hauxe dator:

Gregorio Fernandez y Sobrino elkarteak ondorengo erreketako ur aprobetxamenduaren kontzesioa duela: `Polpol o Sarriola, Garalocua, Munay, Chimillo y Eguiaco o Auzola'. Halaber, adierazten da 231 m-ko ur-jauzia duela eta, erosita, Lazpiur-bekoa errotaren jabe dela eta makinetxearen kokapena aldatu nahi lukeela..

1953ko G.A.O.ean antzeko eskaria egin zen, oraingoan Gonzalo, Francisco, Maria, Pilar, Carmen eta Valentin Movilla Fernandez jaun-andreek egina.

1936 eta 1944 urteen artean hartu zuen alta industri erroldan, Aguirrezabalen alargunaren eta seme-alaben izenean.

Muskiritsu-errekako urak erabiltzen zituen eta errekaren eskumaldean dago kokatuta.

Kokapena: *Osintxu auzoa errekan gora goazela Billotegibolutik 500 metrotara.*

LESARRIBOLUA

TESTUA Berrigara 424

ARGAZIAK (1-3)Pedro Mari Arregi (euskara.bergara.eus) (2) Bergarako Udal Artxiboa J, Idigoras fondoa

Francisco Alberdi Alberdi (33 urtekoa, errotaria),Jose Albisu Gantxegi (78 urtekoa, nekazaria) eta Jose Albisua Mekolalde (50 urtekoa, nekazaria) bizi ziren Lesarrin, 1890eko errolda ofizialak dioenez.

Lesarrikoboluan, ostera, Jose Martin Narbaiza Lamariano (71 urtekoa, zerbitzaria) eta Pedro Villar Telleria (71 urtekoa, errotaria). 1895ean Pedro Villar zegoen errotari Lesarriboluan.

1918ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak honako hau dio:

"Francisco Alberdi jaun bergararrak, Lesarriko boluaren jabe denak, baimena eskatzen du urmaelaren maila 45 cm igotzeko. Presak 34metro dauzka, eta 2 metroko 17 zatitan banatuta geratuko da. Zatiokurak gora egindakoan automatikoki biratuko diren oholez osatuak egongo dira"

Hurrengo urteko aldizkarian eman egin zitzaion horretarako baimena.

Urte batzuk geroago, 1921eko G.A.O.ean, Sociedad Arteche Hnos.en izenean ageri da bolua, eta 1922an baimena eman zioten beste kanal bat egiteko.

LESARRIBOLUA (II)

Honako eskaera hau argitaratu zen 1929ko G.A.O.ean:

Claudio Artechek, Bergarako Sociedad Arteche Hermanos enpresako bazkide gerenteak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Deba ibaiko urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Bergarako Lesarri errotan argindarra sortzea du helburu. 2.000 litro ur jasotzen du segundoko, eta 2,25 metroko jauzia dauka.

Kokapena: *Botatako Lesarri Mekolalden zegoen, gaur egungo Lesarri izeneko baserri eta zubiaren ondoan.*

Antzeko eskaera egin zuen Pedro Alberdik 1955ean. Bestalde, 1926an eman zitzaion alta irin-errota lanak egiteko, Francisco Alberdiren izenean. 1938tik 1951ra Hermanos Alberdi Alberdiren izenean egon zen.

Francisco Alberdi azken errotariak esandakoaren arabera, beste errota baten gainean eraikia da Lesarribolua

Deba ibaiaren ezkerraldean kokatua, bertako urak erabiltzen zituen bere hiru pareak harriak mugitzeko. 1952an laga zion ehotze lanari.

LOIDIBOLUA

TESTUA
Berrigara 403
2000/03/24

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak 1929an ondorengo iragarkia kaleratu zuen:

Eustakio Loidi Bergarako bizilagunak adierazten du Bergarako udalerrian, Angiozar bailaran, Angiozar errekako urak erabiltzen dituela Loidi izeneko errotan indarra sortzeko eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxamendu erregistroan inskribatzea nahi lukeela. Darabilen ur kopurua, bataz beste 21 litro segunduko da eta duen ur-jauzia 5,80 metrokoa da..
Eta hori guztia jendeari jakinarazten zaio.

Kokapena: *Bekoerrota baino 800 bat metro beherago.*

1934an hasi zen lanean irinetarako herri-errota gisa alta emanda, Felix Lazpiurren izenean, eta 1944tik 1963ra Lorentzo Etxeberria Lazpiurren izenean egon zen. 1963an utzi zion herri-errota izateari, ur-eskubidea ordaintzeari utzi zion urtean, alegia, baina, berez, 1952an utzi zion behin betiko ehotzeari. Lorentzo Etxeberria, 1906an jaioa, izan zen bertako azken errotaria.

Angiozar errekaren eskumatara zegoen eta bi turtuki zituen, bata burdinazkoa eta bestea harrizkoa, gerora apurtu egin zena. Batez ere, artoa eta garia ehotzen zuen eta %10eko laka kentzen zuen.

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)



LUISBOLUA EDO PARAOLABOLUA

TESTUA
Berrigara 415
2000/06/23

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 1929 urtea:

Bartolome Askasibar Bergararako bizilagunak adierazten du Uberako errekako urak erabiltzen dituela Bergarako lurretan, Ubera auzoan, dagoen Paraola izeneko errotan indarra sortzeko, eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxamenduen Erregistroan inskribatzea nahi lukeela. Darabilen ur kantitatea, bataz beste, 100 litro /segundokoa da eta ur jauzia 4,50 metrokoa.

Kokapena:*Uberatik Bergararako bidean, auzunetik kilometro batera, errepidearen eskumako aldean.*

Antzeko eskaria egin zuten 1956an; orduko hartan eskegilea Inazio Askasibar izan zen.
Irina egiteko herri-errota moduan 1934an eman zitzaion alta Bartolome Askasibar Garaizabalen izenean.

Luisboluko azken errotaria Inazio Askasibar izan zen eta 1979an hil zen 76 urterekin.
Elgeta-errekako urak ere biltzen zituen eta bere eskumatara zegoen.
Auzokoek esan zigutenez, bi harri pare zituen, burdinazko bi turtukik eragindakoak, eta jeneralean artoa eta garia ehotzen ziren.

Harriak pikatzea ere Askasibarrek berak egiten zuen eta ehotakoaren %10eko laka ematen zitzaion. Azkeneko ehoaldia 1978an egin zuen.



NARBAIZABOLUA

TESTUA

Berrigara 416
2000/06/30

Lope Martinez de Isastik 1625ean Bergarako Narbaiza oinetxea aipatzen du.

1890ean, ondorengoak bizi ziren Narbaiza-boluan, orduko zentsu ofizialaren arabera: Justo Agirre Azkargorta, 45 urtekoa, errotaria, irakurtzen eta idazten bazekiena, eta Juan Jose Agirre Elokoro-Iribe, 69 urtekoa, nekazaria, irakurtzen eta idazten ez zekiena.

1895ean Juan Agirre agertzen da Narbaiza-boluko errotari.

1929ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, berriz, honako hau dakar:

Angel Agirre Bergarako bizilagunak adierazten du Ubera errekako urak erabiltzen dituela Bergarako lurretan, San Juan auzoan, duen Narbaiza izeneko errotan indarra sortzeko, eta erabilera hori Herri-Uren Aprobetxamenduen Erregistroan inskribatzea nahi lukeela. Darabilen ur kantitatea, batez beste, 100 litro / segundokoa da eta ur jauzia 4 metrokoa. Eta hori guztia herritarrei jakinarazten zaie.

1927. urtean Angel Agirreren izenean eman zitzaion alta Narbaizako boluari irina egiteko herri-errota gisa eta 1940tik 1963ra Sebastian Agirre Mendizabalen izenean egon zen. 1963a izan zen herri errota bezala funtzionatu zuen azken urtea.

Narbaizaboluko azkeneko errotaria Luis Mari Agirre izan zen, 1929an jaioa. Elgeta-erreka edo Ubera-errekako urak erabiltzen zituen eta bere eskumatan dago. Bi harri pare zituen, burdinazko bi turtukik eragindakoak.

Harriak pikatzea ere, Askasibarrek berak egiten zuen eta ehotakoaren % 10eko laka ematen zitzaion. 1975ean egin zuen lan azkenengo aldiz.

***Kokapena**: Bergaratik Elgetarako bidean, San Juan auzoan, Bolintxo baino 800 bat metro gorago*



OKARANDI ERROTA

Gipuzkoako 1929ko Aldizkari Ofizialak honakoa zioen:

Jose Olañeta jaun bergararrak eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Albistegi eta Sasi erreketako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek, Bergarako Ubera auzoan dagoen Ocarandi errotan argindarra sortzea du helburu. 100 litro ur jasotzen du segunduko, eta 6,50 metroko jauzia dauka

Kokapena: *Uberako elizaren pare-parean.*

1936an eman zitzaion alta errota "publiko" honi, Jose Olañeta Azkarateren izenean, eta 1949an ordaindu zuen azkenengo aldiz jardun horri zegokion zerga.

Auzokideek adierazi zigutenez (1980/11/31), Angel Olañeta izan zen azken errotaria. 1960an hil zen, 65 urte zituela.

Elgeta errekaren eskumaldean kokatua, bi pare harri zeuzkan. Ondoan, zerratokia eta auzoko baserriendako argindarra sortzen zuen alternadorea zeuden. Okarandi errota desagertuaren orubean etxebizitzak eraiki zituzten.





OSIÑETA ERROTA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak honela dio 1897an:

Angiozarko parroko Jose Juan Kortazarrekoa jaunak, Dionisio Ochoa jaunaren testamentu-egikaritzearen izenean, Angiozar deritzon errekako urak berriro ere erabiltzen hasteko baimena eskatzen du. Urok, lehen, Osineta; geroago, Aldacherre, eta, gaur egun', Aldaz Barrey izena ematen zaion irin-errotarako izango dira.

Horretarako, presa zaharra berregingo da, gehienez ere metro bat eta berrogei zentrimetroko altura emanda, eta haren eskumaldetik aterako da ura desbideratzeko kanala, lehen zegoenaren berdina. Kanalak segundoko 120 litro ur jasoko ditu, eta, bost metroko urjauzi baten bidez, errotarako indarra sortuko. Kanal horrek Bolintxo izeneko errotan erabili izan diren urak ere jasoko ditu.

Desbideralutako ura 22 metroko luzera duen hustubide batetik itzuliko da atzera ere errekara.
Hori guztia ezagutzera ematen dut.

1898ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean baimena ematen zaio.

1955etik 1957ra besterik ez zuen alta hartu irin-errota publiko honek, Ochoa y Cia.ren izenean.

Errota hau zazpi baserrirena zen. Geroago, Eugenio Ochoarena izan zen (1966an hila, 75 urte zituela). Harrezkero, beste bazkideak Bekoerrotako partaide izatera pasatu ziren.

1947an laga zion irina egiteari, eta gaur egun zeharo hondatuta dago.

Kokapena: *Bolintxoko errotatik 100 metrora, errekan behera.*



OSINTXUBOLUA

TESTUA

Berrigara 430
2000/11/17

Manuel Larrañaga Murua (72 urte) eta Jose Zanguitu Iturbe (72) nekazariak bizi ziren garai hartan "Molino de martires"-en (biek zekiten idazten eta irakurtzen), 1890eko errolda ofizialaren arabera.

1895ean Manuel Larrañaga zen errotaria.
1917an Luis Zanguítu zen jabea.

1927an errotaren urak Bergara hornitzeko hartzen hasi ziren, baina ez zen ur guztia erabiliko.

1929ko GAOk honela dio:

On Valentin Movilla bergararrak, Sobrino de Fernandez y Cia-ren izenean, eskaria egin du, Ur Publikoen Aprobetxamenduko erroldan Muzkiritxu-errekako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek Martires-Oxiranzu izeneko auzoan dagoen Osinchucobolua errotan argindarra sortzea du belburu. Jasotzen duen ur-emaria segundoko 60 litrokoa da, eta 4,5 metroko jauzia dauka.

Muskiritsu errekako urez baliatzen zen, eta beronen eskuman zegoen kokatua. Bi burdin-errodete zeuzkan bi pare harri mugitzeko. Horrez gain, argindarra ere lortzen zuten etxerako.

Azken urteetan 5 Kv-tako "J.M.L.- 0.0nena.G." markako alternadore bat jarri zuten, beste gune batzuek ere argindarra izan zezaten. Gainera, errota okindegia ere bada.

1931n hartu zuen alta irin errota publiko honek, Felipe Garmendia Uleciaren izenean. Honek, 1944tik errota okindegi ere izateagatik, kuota bat ordaindu behar izan zuen. 1963ra arte izan zen errota publiko.

1974an egin zuten azken ehotzea.

Kokapena: *Osintxuko zubitik 50 metrora, Muskiritsu errekaren gainean.*

OTSAITZ ERROTA

TESTUA

Berrigara

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) 18931 zenbakidunean hain zuzen, hauxe agertu zen:

Jose Andres Albisua, Juan Jose Gorosabel, Prudencio Unamuno, Jose Francisco Alkorta eta Pascual Maiztegi jaunek, Bergarako bizilagunek, Otaitz errekatik doazen uretatik 50 litro segundoko desbideratu eta erabiltzeko baimena eskatu zuten, Bergarako Elkorobarrutia baserriko lursailetan egin nahi zuten irinetarako errota mugitzeko indarra izateko.

GAO horretan baimena ematen zaie aipatutako errota egiteko.

Une horretan bertan jaso zen 13 baserriren artean, euren erabilerarako.

Otsaitz errekako urak erabiltzen zituen, bere eskuinaldean dago eta bi harri pare zituen, burdinazko bi turtukiren bidez mugitzen zirenak.

Harriak gastatzen zirenean eta pikatu beharra zutenean, Pedro Jose Garaitanoindia bazkideak (1961ean hil zen) egiten zuen.

Gaur egun oso hondatuta (aurri egoeran) dago.

ARGAZKIA
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

Kokapena: *Elorregi auzoan, San Esteban ermitaren eta Elkorobarrutia baserriaren azpialdean.*



OZAETA ERROTA

TESTUA

Berrigara

Bergarako parrokiako kontu liburuetan 1570eko abenduaren 25ean elizari emateko egindako diru-bilketa baten berri jasotzen da: "Pedro, Oceta-ko errotariak dukat bat".

Martinez de Isastik 1625ean “Ozaeta etxea, ahaide nagusiena" aipatzen du, Bergaran.

1908ko GAOean (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean) hauxe irakur dezakegu:

Esteban de Irizar jaunak, Bergarako herritarrak, eta Ozaeta errotaren jabeak, ubidea desbideratzeko eta gaur eguneko ubide zati bat estaltzeko baimena eskatu zuen. Horretarako hustubide berri bat egingo da errotaren lursailelatik abiatuta, lursailean zehar, uholdeetan ureztatzen den uharritzan zehar errekaraino; kanal hori ganga batez estalita egingo da; eta gaur eguneko ubidea horma baten bidez itxiko da eskatzailearen jabetzapeko plazatxoan. Eta herritarrei jakinarazten zaie.

Urte batzuk geroago, 1918an, Esteban de Irizarrek berak baimena eskatu zuen 0,30 metroko altuerako altxa mugigarriak jartzeko urtegiaren gainaldean zegoen 0,40 metroko altuerako mazizo baten gainean, Ozaetako errota eta zerra mekanikorako.

Urtebete beranduago eman zen baimena:

Aprobetxamendu hau zerrategiaren premiei erantzuteko, eta indar horren zati bat Zubiaurre auzoko argiteria publikorako izango da.

Inguru horretara egin genuen bisitan, Lorenzo Loidi Angiozarko auzotarrak esan zigun euren lurretan eraiki zela Altos Hornos lantegia eta ezin zuela esan noiz laga zion errotako lanari.

Kokapena: *Bergaratik Arrasaterako eta Bergaratik Angiozarrerako bideen elkargunean, Altos Hornos lantegiak hartutako lursailetan.*

SALTAERROTA

TESTUA

Berrigara398
2000/02/18

“Salto erreka"ren izenean eman zitzaion alta 1949an. Irin-errota zen. Hurrengo urtean erroldatik desagertua zegoen. Inguruko 20ren bat baserrirena zen.

Angiozar errekaren eskumaldean kokatua; bertako urez baliatzen zen, eta bi pare harri zerabiltzan garia, artoa, garagarra eta ganadua-rendako pentsuak ehotzeko.

1981erako dagoeneko deseginda zegoen.

ARGAZKIAK
Luis Mari Alberdi
(euskara.bergara.eus)

Kokapena: *Angiozarko elizatik 1.500 bat metrora, errekan gora.*



BOLUA

TESTUA
Berrigara 398
2000/02/18

Bolua izeneko baserri baten hondarrak baino ez daude.

Auzokoen esanetan (1981/01/05), gurasoei entzun izan zieten noizbait errota izana zela. Angiozarko errekatxoa eraikinaren azpitik doa.

Bere kokapena eta ingurua kontuan izanda, pentsa liteke noizbait errota izana zela, izenak berak dioen bezala (bolua= errota).

Kokapena: *Angiozarko elizatik kilometro batera, errekan gora.*

SAN ANTONIO

TESTUA
Berrigara 408
2000/05/05

Zentsu ofizialak dakarrenez, (1890ekoak), garai hartan errotaetxe honetan bizi ziren, besteak beste ondorengo bizilagunak: Jose Azkarate Muxika, 64 urtekoa eta Lorentzo Azkarate Argarate, 28 urtekoa, okina. Biek zekiten irakurtzen eta idazten.

1895ean Azkarateren alarguna ageri da errotari moduan.

1927an Lorentzo Azkaratek irin-errota gisa eman zion alta Industrian eta 1939tik aurrera okindegi izatearren ordaindu beharreko kuota ordaindu zuen. Nikolas Azkarate Jauregi izan zen azken titularra.

Kokapena: *San Antonio Paduakoaren ermitaren aurre-aurrean, une honetan plaza txiki bat dagoen tokian, Antzuola, Zumarraga eta Bergarako errepideen bidegurutzean.*

Azken errotaria Nikolas Azkarate izan zen, 1965ean hil zen, 66 urte zituela.

1940an utzi zion lan egiteari errota-okindegi honek eta 1942an bota zuten.

Deba errekaren eskumako aldean zegoen eta bertako urak erabiltzen zituen. Bi harri pare zituen.

Uholdeak errota atarian

ARGAZKIAK
Bergarako Udal Artxiboa

SANTA ANA-BOLUA

TESTUA
Berrigara 411
2000/05/26

Santa Ana-Bolua: “1661ean, Martin de Murua Elorreguik Diego de Aroztegui Marañoni Errota- Alden, hau da, errota ondoan, zegoen Aroztegiko dorrea eta orubea erosi zizkion”.

1890eko errolda ofizialaren arabera, Jose Manuel Barrutia Irigoien bizi zen Santa Anan. 33 urteko nekazaria. Badaki idazten eta irakurtzen.

1905eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak dioenez, Del Valleko kondea da Santa Anako errotaren jabea.
Santa Anako errota desagertu egin zen, eta errota kokatuta zegoen baserriko bizilagunek adierazi zigutenez (81/01/07), duela 400 urtetik gora laga zion errota izateari. Gu egon eta sei hilabetera, bota egin zuten Santa Ana-Bolua baserria, eta frontoia egin zuten bertan.

Aranerrekaren eskumaldean zegoenez, bertako ura erabiltzen zuen.

Kokapena: *Aranerreka auzoan zegoen, Santa Ana ermitaren atzean*

TROSKAZULO ERROTA

TESTUA

Berrigara 433
2000/12/15

1905eko GAOk honela dio:

On Prudencio Alberdi bergararrak eskaria egin du segundoko 8 litroko ur-emaria jasotzeko Urola ibaiko ibaiadar den Trosca-zulo errekatik; 62.52 metroko jauzia dauka eta Bergarak du bere eskumena. Ur hori argindarra lortzeko nahi du, gerora bertan egingo den errota batentzako.

Uren desbideratzea Zubi-arri zubipean egingo da: Azkoititik Zumarragarako bidetik kilometro batera dago; buztin-hodi batzuen bidez ura eramango da ur-hartunetik 100 metrora dagoen depositu erregulatzaile batera.

Kokapena: *Errekalde auzoan, Aizpurutxotik gota, Kortaberria baserritik 500 metrora.*

Urak aipatutako Trosca-zulora bideratuko dira berriro, urok erabiltzeko beharrik ez dagoenean.

Langileak ezartzea ere eskatzen da.

Urtebete geroago, 1906an, obren baimena ematen zaio.

Troskasulo errotako azken errotaria Luciano Alberdi izan zen. 1961. urte aldera errota horretan ehotzeari utzi zioten.

"Errekaundi" urez baliatzen zen. Errota erreka horren ezkerraldean zegoen. Bi burdin-errodete zeuzkan bi harri mugitzeko.

Errota izateari utzi zionean zentral elektriko bihurtu zen inguruko baserriak hornitzeko. Gaur egun lau baserrik bakarrik erabiltzen dute zentral horretako energia.

Kortabarri baserritik 500 metrora dago. Baserri horretako jabeek sistema berezia zeukaten errota martxan jartzeko: baserri barrutik, hainbat kable eta polea erabiliz, errotaren ateak zabaldu eta abiarazten zuten, baserritik irten barik.

URIETA

TESTUA
Berrigara 406
2000/04/14

Ondoko hauek agertzen dira 1890eko zentsu ofizialean Urieta-errotan helbideratuta: Jose Migel Gantxegi Maiztegi, 31 urtekoa eta Pedro Jose Maiztegi Narbaiza, 40koa, biak nekazariak.

Ignacio Gantxegi errotari moduan agertzen da 1895ean.

1899ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (GAO):

Jose Domingo Mendigutxia jaunak, Elgetako baserritarra, Bizente Monzon bergarar jaunaren izenean, gaur egun, Urieta errotak erabiltzen duen ur-saltoa handitzeko baimena eskatzen du. Ur-salto hori Bergarako udalerrian dago, eta Deba errekako urekin dabil orain. Zortzi metro eta hogei zentimetroko ur jauzia egin nahi da.

Desbideratutako ur-emaria 1.500-ekoa izango da; eta urtegia gaur egun dagoena. Ubide berria, 780 metroko luzerakoa, errekaren eskuinaldetik doa. Makinen gela Gregorio Garitano jaunaren lursailetan kokatuko da, horretarako behar den baimena emana du eta.

1901eko GAO baten bidez badakigu Francisco Elgarresta jauna -"Sociedad comendataria Vergarajauregui Resusta y Compañía"ren izenean- zela Urieta errotaren aprobetxamenduaren jabea; geroago beste aldizkari ofizial baten agertzen den moduan.

Eraikin horrek bi etxebizitza zituen, horietako bat errota. Etxebizitza eta errota Telesforo Monzon euskal politikari nazionalistaren aitak saldu zituen 1920 inguruan.

Azken errotaria Isidro Arrieta Leanizbeakoetxea izan zen, 1956an hila, 80 urte zituela.
Urieta-Errota delakoak Deba errekako urekin egiten zuen lan, errekaren ezkerraldean dago eta. Hiru harri pare zituen 1926an egin zuen lan azken aldiz.

Kokapena: *Elorregi auzotik Bergarako herrigunera doan errepidea hartuta, Elorregitik kilometro batera eskuinaldean dagoen lehen baserria*

Bergaran, 2022ko maiatzean


0'5
106.-
2'2
"Sarta" de hierro
Fondo 2'65
4.-
0'55ϕ
30.-
S.
O.
E.
N.
10.-
Camino
7.-
3'4
2'9
Anguiozar ko Errekia
Salto-Errota
Bº Anguiozar
VERGARA
A. Aguirre-19-VII-91
0
10
20m.


Camino
Canal
0'7
Altura s.v.
9.-
0 1 2 3 4m.

2022